

Se ha salvado, repetimos, el monasterio de San Millan, encomendado á los religiosos de San Agustín; porque ellos mejor que nadie saben cómo se conservan y cómo se restauran los monumentos del arte, de la antigüedad y de la religion.

FRANCISCO N. VILLOSLADA.

AMORIYUAREN INDARRA.

Biyotzak digu leku danetan
 Nai duben gisa agintzen,
 Non digun buru pakeosua
 Gerra biziyan ipintzen;
 Gañera berak erakusten du
 Begiyak ondo argitzen,
 Eta amore kontu guztiyak
 Bear bezela garbitzen.

Ibai bateko zurrubillua
 Naspill dabillen bezela,
 Iduritzen da amoriyodun
 Biyotz ona dabillela;
 Maitasun gogor beruegiya
 Baño obe da epela,
 Bada bestela biur liteke
 Kolpez bero ura jela.

Maitasunean ikusten degu
 Guztiro argi, izarra,
 Ez dana errez berari kentzen.
 Sortzetik daukan indarra;
 ¿Nola pisten da su guchirekin
 Errazki arbatz igarra?
 Ala sortzen da biyotz gurera
 Negar kantuzko ibarra.

JUAN IGNACIO URANGA.

